

Ingelesari ez ote zaio mugarik jarri behar?

PATRICIA RYAN britainiarrak hamarkadak egin ditu arabiar golkoko herrialdeetan ingelesa irakasten. Munduko bazter guztietara zabaldu den eta horretan ari den hizkuntzaz eta gainerrako guztietaz gogoeta egiteko astia izan du. Modernizatzeko, unibertsitate onenetan sartzeko... ikasleak eta gurasoak ahalegin betean irudikatu ditu Ryanek. Besteak beste, negozio ikaragarritzat du ingeles irakaskuntza. Ez dio uko egiten ingelesa ikasi/irakasteari, baina mugaren bat behar dela dio, eta tartean galdera hau bota du: 14 egunetik behin hizkuntza bat hiltzen da. Horrek zerikusirik ba



ote du ingelesaren globalizazioarekin?

Munduan milioika lagun ari dira ingeles azterketak egiten; ordaindu egin behar diren etsaminak. Eta Ryanek berak dio txiroenek adibidez ezin dutela halakorik ordaindu.

10 minutuko bideoa hemen duzue: clearazi.org/2012/05/28/maitaturere-hizkuntza.

Martxoaren 2an mobilizazioak Werten erreformaren aurka

ELA, LAB ETA EILAS sindikatuek martxoaren 2rako mobilizazio deialdia egin dute. Espainiako Hezkuntza ministro José Ignacio Werten erreforma “inposatzailea, zentralizatzailea, uniformatzailea, espainolizatzailea, atzerakoia, doktrinatzatzailea, segregatzailea eta elitista” dela salatu dute. Erantzunak erasoaren tamainakoa izan behar duela diote eta Nafarroako Gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta alderdi politikoei bat egiteko eskatu diete. CCOO eta UGTk ere gauza bera egin beharko luketela uste dute.

Bahea

Vicenç Villatoro kazetariak Gaur8n esanak:

“Ekialdean, adibidez, euren komunitatea zehazteko erlijioa, odola edo jaioren lekua gisako elementuak erabiltzen dituzte, eta, hori, zure izatea hizkuntzaren arabera zehaztea baino askoz zurrunagoa da. Ez du malgutasunik onartzen, odola duguna dugulako. Ez dago aldatzerik. Erlijioarekin berdin, hiru erlijiotakoa izan zaitezke, baina, ziurrenik, hiru-eretatik botako zaituzte. Hizkuntzarekin ez da hori gertatzen;

hizkuntzak metagarriak dira, adopta daitezke.

Hizkuntza da barruan edo kanpoan kokatzen zaituena, hizkuntza da komunitate sentimentala zehazten duena. Eta, beraz, hizkuntza izan daiteke kohesio soziala bezalako gauza zail bezain garrantzitsua bideratzeko gakoa, baldin eta hizkuntza identitate sentimental edo komunitarioaren erdian jartzen baduzu”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Gerretako interes ekonomikoak

FRANTZIAKO KOLONIA IZANDAKO Mali iparraldean eraso militarra jo du Frantziako Gobernuak, eta Aljerian eragiten ari da jadanik. Frantziako presidente François Hollandek dio eraso “antiterrorista eta behin behinekoa” dela, Bamako hiriburuan bizi diren frantziar biztanleak babesteko eta Malik bere lurraldea berreskura dezan. Gune hartara 2.500 militar bidali ditu eta European nahiz AEBetan babes logistiko bila dabil. Espainiako Estatuak baimena eman dio Frantziako abiazioari bere aire espazioa erabiltzeko eta laguntza gehiago ere emango omen dio. Eraso hasi zenetik 30.000 lagun euren etxeak utzi eta herrialdetik atera nahian dabilta, batez ere Mauritania eta Aljeria aldera. Hollandek honakoa esan du: “Ez gaude Malin gure enpresak defendatzeko, gure herritarrak baizik”.

Hain justu, badirudi interes ekonomikoak daudela jokoan misio militar honetan. Beste eraso eta gerretan ere hala gertatu da, AEBek Pertsiar Golkoan edo

Afganistanen beren petrolio erresebak defendatzeko egindakoak kasu. Malin ere interes ekonomiko ugari daude. Zehazki, lehengaiak merke erazten dituzten enpresak daude han, Frantziako zentral nuklearrak funtzionatzeko beharrezkoa den uranioa ateratzen dute, adibidez. Testuinguru horretan, azkenaldian enpresa horietako langileak bahitu dituzte. Eraso militarra jotzeko, Frantziako Gobernuak arrazoitzen du “demokraziaren defentsan” ari dela, islamiar “terroristek” bortxatua izan delako. Aitzitik, azken urteetan Maliko Gobernuak egindako bortxaketa ugariaren eta ustelkeriaren aurrean, ez du ezer egin. Zergatik orain hainbesteko presa erasotzeko? Demokraziaren defentsaz ala uranio merkeaz ari gara?



Juan Mari Arregi